

# BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUN SAILA

## 5174

*EBAZPENA, 2024ko urriaren 25ekoa, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, zeinaren bidez formulatzen baita Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Egiturazko Aldaketaren Ingurumen Adierazpen Estrategikoa, Vitoria-Gasteizko Ibaia kirol-hiriaren eremuaren mugaketari buruzkoa.*

### AURREKARIAK

2021eko abuztuaren 2ko Ebazpenaren bidez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak, EAED-141INET espedientearen esparruan, Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Aldaketa Puntualaren irismen-dokumentua formulatu zuen, Ibaia kirol-hiriaren eremuan, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean eta Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan eta Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzeko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, Vitoria-Gasteizko Udalak Planaren eta haren ingurumen-azterketa estrategikoaren jendaurreko informazioaren izapidea bete zuen, jendaurrean 45 egunez jarrita, 2023ko maiatzaren 8ko Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialeko iragarkiaren bidez. Era berean, indarrean dagoen araudiaren arabera, eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egiteko izapidea bete zuen.

Vitoria-Gasteizko Udalak ohartarazi zuenez, jendaurreko informazio aldian alegazio bat eta eragindako administrazio publikoek eginiko zenbait txosten jaso zituzten, eta azken horien emaitza nahiz edukia administrazio-espedientearen daude jasota; gainera, aipatutako alegazio eta txosten horiek kontuan hartu dira Planaren behin betiko bertsioa idazteko orduan.

2024ko uztailaren 29an, Vitoria-Gasteizko Udalak eskabide bat aurkeztu zuen Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzan, Ibaia kirol-hiriaren eremuaren mugaketari buruzko Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren (aurrerantzean, Plana) Egiturazko Aldaketa-aren Ingurumen Adierazpen Estrategikoa egiteko.

Eskaerarekin batera, honako hauek aurkeztu zituen: Planaren behin betiko proposamena, 2024ko urtarrilekoa; Ingurumen Azterketa Estrategikoa, 2022ko azarokoa, 2020ko ekaineko azterketa akustikoa jasotzen duena; eta jendaurreko informazioaren izapidea eta ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei entzunaldia egiteko izapideak azaltzeko zenbait dokumentu.

### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren helburua da ingurumenean ondorio adierazgarriak eragin ditzaketen plan, programa eta proiektuen ingurumen-ebaluazioa arautu behar duten oinarriak ezartzea, eta ingurumenaren babes-maila handia bermatzea, garapen jasangarria sustatzea helburu hartuta.

Halaber, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 60. artikuluan arabera, ingurumen-ebaluazioak ingurumena babesteko maila handia bermatu eta garapen jasangarria sustatuko du. Horretarako, planak, programak eta proiektuak egiteko, hartzeko, onesteko edo baimentzeko ingurumen-alderdiak bateratuko ditu; ingurumen-alternatiba bideragarriak aztertu eta hautatuko ditu; ingurumenarekiko ondorio kaltegarriak prebenitzeko, zuzentzeko eta, hala badagokio, konpentsatzeko aukera ematen duen neurriak ezarriko ditu; eta ingurumen-ebaluazioaren helburua betetzeko beharrezkoak diren zaintza-, jarraipen-, eta zehapen-neurriak ezarriko ditu.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.1 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, administrazio publiko batek abian jarritako edo onetsitako planei eta programei ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin behar zaie, bai eta haien aldaketei ere, horiek lege- edo arau-xedapen batek beharturik prestatu eta onartu badira, baldin eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera legez behartutako proiektuak baimentzeko etorkizuneko esparrua ezartzen badute eta arlo jakin batzuei erreferentzia egiten badiete, hala nola hiri- eta landa-lurraldearen antolamenduari eta lurzoruaren erabilerari.

Orobat, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 61. artikuluan xedatutakoaren arabera, II.A. eranskinean zehazten denari jarraituz ingurumenean ondorio esanguratsuak izan ditzaketen planei, programei eta horien aldaketei eta berrikuspe-nei ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa arrunta egingo zaie. Eranskin horretan jasotako plan eta programen artean, etorkizunean ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera legez behartutako proiektuak baimentzeko esparrua ezartzen duten eta arlo jakin batzuei –hala nola hiri- eta landa-lurraldearen antolamenduari eta lurzoruaren erabilerari– erreferentzia egiten dieten planak eta programak daude.

Halaber, kontuan hartuta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 17. artikulua eta hurrengoak, eta Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzeko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua eta hurrengoak, bai Vitoria-Gasteizko Udalak, bai Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren Zuzendaritzak beharrezkoa den guztia xedatu dute Planaren ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura aurrera eramateko ingurumen-azterketa estrategikoa baten bidez –zeinaren irismena aurrez ezarri baita–, kontsulta publikoen bidez eta ukitutako administrazio publikoen eta interesdunen parte-hartze prozeduraren bidez.

Planaren ingurumen-ebaluazio estrategikoaren espedienteko dokumentazio teknikoa eta txostenak aztertu ostean, eta kontuan hartuta ingurumen-azterketa estrategikoa egokia dela eta indarrean dagoen araudiari egokitzen zaiola, ingurumen-adierazpen estrategikoa hau eman du Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren Zuzendaritzak (organo eskuduna da, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren arabera), Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuarekin bat etorri. Esandako adierazpen horretan, ingurumenaren arloko alderdiak Planaren proposamenean egoki txertatu direla baloratzen da, eta plan horrek ingurumenean eragingo dituen inpaktu esanguratsuen aipamena ere jasotzen da, azkenean onartuko den Planean sartu beharreko azken zehaztapenak barnean direla, ingurumen-ondorioetarako bakarrik.

Xedapen hauek hartu dira kontuan: 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena; 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena; 18/2024 Dekretua, ekainaren 23koa,

lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorreko sailak sortu, eza-batu eta aldatzen dituena eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horrenbestez, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren Egiturazko Aldaketaren ingurumen-adierazpen estrategikoa egitea, Ibaia kirol-hiriaren eremua mugatzeari buruzkoa, jarraian jasotzen diren baldintzetan:

a) Planaren eremuak 112.736,00 m<sup>2</sup>-ko azalera hartzen du, eta Vitoria-Gasteizko hiriaren mendebaldean dago. Hegoaldean, N-102 (lehenengo N-I) errepidearekin egiten du muga; ekialdean, A-4303 auzo-sarearekin, iparralderantz joanda gertu dagoen Zuhatsu Vitoria-Gasteiz herriarekin lotzen duena; mendebaldean, Ibaia kanpina, orain erabiltzen ez den Ibaia tiro-eremu zaharren instalazioak eta Jundiz industrialdea daude; eta, ekialdean, Zabalzana auzotik bereizten duten nekazaritza-lurzatiak daude.

Indarrean dagoen Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren lurzoru urbanizaezin gisa sailkatzen du Ibaia kirol-hiriaren eremua, eta nekazaritza-balioa duten eremuen kalifikazioa ematen dio. Planaren xedea da Ibaian egun dauden instalazioen erabilera kirol-ekipamendu gisa erregularizatzea, lurzoru urbanizaezinean ekipamendu kolektibo pribatuen eremu berri bat sortuta, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen «Sistema orokorren zuzkida-sarea» izeneko 54. artikularen 1. apartatuaren arabera, eta kirol-hiria handitzeko aukera ematea.

Kirol-hiria handitzeko, Planak futbol-zelaiaren egungo eskaintza bikoiztea aurreikusten du, 4 zelai izatetik (2 belar naturalekoak eta 2 belar artifizialekoak) 8 zelai izatera pasatuta; horietatik 3 belar naturalekoak izango lirake eta, gainerakoak, artifizialekoak. Jokatzeko guneak bi beroketa-gunerekin osatuko lirake.

Eraikuntzari dagokionez, eraikin nagusiaren egungo banaketari eutsi zaio, eta hegoaldean eraikin berri bat jarriko da, gaur egungoarekin lotuta.

Aparkaleku nagusiaren ondoan (218 autorentzako edukia duena), jendea bertatik sartzeko eta bertan hartzeko eraikin bat proiektatzen da. Gainera, 3. zelaiaren gainean 683 ikuslerentzako harmaila bat eta 20 VIP eserlekuko palko bat jartzea proposatzen da, eta 280 ikuslerentzako estalitako harmaila txiki bat 4. zelaiaren 5., 6. eta 7. zelaiaren ondoan eraikin txiki bat dago, hiru horiei zerbitzua ematen diena. Posible denez 7. zelaia alokatzea, 2 eserleku-errenkadako harmaila bat jartzea proposatzen da. Azkenik, 56 plazako bigarren aparkaleku bat aurreikusten da 3. zelaiaren mendebaldean.

Gaur egun, eraikitako azalera 1.441,02 m<sup>2</sup>-koa da, eta hirigintza-eraikigarritasuna 12.000 m<sup>2</sup>-ra arte handitzea dago baimenduta. Eremuan eraikitako azalera osoa 9.290 m<sup>2</sup>-koa izango da, eta honela banatuko da: eraikin nagusia: 1.442 m<sup>2</sup>; eraikin nagusiaren handitzea: 1.894 m<sup>2</sup>; sartzeko eraikina / harmaila: 5.354 m<sup>2</sup>; eta erantsitako pabiloia: 600 m<sup>2</sup>.

Zelaiaren antolaketak eta kotak lur-mugimenduak minimizatzeko irizpideari erantzuten diote. Nolanahi ere, honako lur-mugimendu hauek aurreikusten dira: lurzatian utziko den 5.791 m<sup>3</sup> lur natural hondeatzea, 10.411 m<sup>3</sup> hartxintzar hondeatzea betelan gisa erabiltzeko, 3.487 m<sup>3</sup> harri bigun hondeatzea betelan gisa erabiltzeko, 3.681 m<sup>3</sup> harri bigun hondeatzea eta garraiatzea, eta 9.084 m<sup>3</sup> harri gogor hondeatzea eta garraiatzea.

Aldaketa horrek indarrean dagoen Vitoria-Gasteizko HAPOko kalifikazio orokorraren eta sistema orokorren planoak aldatuko ditu.

Aurkeztutako dokumentazioan, 0 edo «ez esku-hartzeko» alternatibaren azterketa sartzen da. Alternatiba hori lurzoru urbanizaezinaren egungo hirigintza-egoera mantentzean datza, hots, ekipamendu-erabilerako eremu bat duen nekazaritza-balioko eremuaren kalifikazioarekin, eta esku hartzeko bi alternatiba: 1. eta 2. alternatibak.

1. alternatiba honetan datza: batetik, egungo lurzoru urbanizaezinaren eremuan ekipamendu-sistema orokor bat sortzea, kirol-ekipamenduaren kalifikazioarekin, Ibaia kirol-hiriaren eremuaren egungo egoera mantenduta (neurriak eta azalerak); eta, bestetik, indarrean dagoen plan orokorra aldatzea, indarrean dagoen Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 54.1 eta 54.2.e) artikuluetan jasotako sistema orokor pribatuen aukera gaitzeko, ekipamendu kolektibo pribatuen forman, betiere ez badira indarreko HAPOaren 4.02.05 artikuluan sartzen, zeinak Komunitatearen Ekipamenduko Sistema Orokorrak jabetza publikokotzat definitzen baititu.

2. alternatiba (Planak garatu duena) honetan datza: batetik, kirol-ekipamenduko sistema orokor bat sortzea, egungo eremuaren neurriak, azalerak eta eraikigarritasuna handituta; eta, bestetik, indarrean dagoen plan orokorra aldatzea, sistema orokor pribatuen aukera gaitzeko, indarrean dagoen Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 54.1 eta 54.2.e) artikuluetan agertzen diren moduan, ekipamendu kolektibo pribatuen forma sartzeko, betiere ez badira indarreko HAPOaren 4.02.05 artikuluan sartzen, zeinak jabetza publikoari soilik egiten baitio erreferentzia.

Planaren arabera, 2. alternatibak kirol-hiriak behar dituen premiak eta programa jasotzen ditu, eta, aldi berean, kirol-instalazio berri bat ematen dio Vitoria-Gasteizi, gizartearen egungo eskariei jarraikiz. Nahiz eta 2. alternatiba den ingurumenari gehien eragiten diona, inplikaturako alderdi guztien planteamenduei erantzuten dien bakarra da: Vitoria-Gasteizko Udala, eremuaren sustatzailea, eta antolamenduaren ondoriozko lurzatiak azken erabiltzaileak.

Planaren xede den eremua Zadorraren Unitate Hidrologikoan sartzen da, Ebroko Mugape Hidrografikoan. Zehazki, Zadorra ibaiaren arroan kokatzen da, Dulantzitik Zayaseraino. Ibaia kanpinaren lursailen mendebaldetik Eskibel ibaia igarotzen da, eta A-4303 bidearen ekialdetik Torrogiko ibaia. Eremuaren barruan ez da ibai-ibilgurik identifikatu, baina 4. zelaiko aparkalekua Eskibel eta Torrogiko errekei lotutako ibilguak zaintzeko eremuan dago.

Material litologikoak tuparri-kareharrien, kareharrizko tuparrien eta kalkareniten alternantzia dira, eta pitzadura bidezko iragazkortasun txikia dute. Ez dago interes geologikoko toki edo elementurik. Lursailen ikuspegi geomorfologikotik, mendi-hegalen sisteman sartzen dira, eta erliebe laua du nagusiki. Eremua Arabako Plataformaren domeinu hidrogeologikoan kokatzen da, Kuartango Agurain lurpeko ur-masaren gainean zehazki. Eremuaren zati handi bat akuiferoen gainean dago, eta akuifero horiek kutsadurarekiko urrakortasun handia dute.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialaren (aurrerantzean, LPS) arabera, osagai hidraulikoa kontuan hartuta, esparrutik hurbil dagoen Eskibel ibaiaren tartea 0 mailakotzat hartzen da (1-10 km<sup>2</sup>-ko isurialdea) eta Torrogiko ibaia 00 mailakoa, (1 km<sup>2</sup> baino gutxiagoko arroa).

Eremu honetako eta inguruneko landaredia-serie potentziala erkamezti kantauriarra da. Eusko Jaurlaritzaren 2007ko landarediaren kartografiaren arabera (geoEuskadi), eremua hiri-parkeetako eta lorategietako landarediak eta landaredi erruderal nitrofiloak osatzen dute, dauden kirol-instalazioetan ere bai, eta eremuaren ipar erdian laborantza-guneak (zereala, patata eta erremolatxa), ihia duten ipurudi-larreak eta margo-buztin higaduretako landaredia daude. Gainera, eremuak

Batasunaren intereseko 4090 habitata ukitzen du (Txilardi oromediterraneo endemikoak, otabe-rarekin). Habitat hori lehendik dauden nekazaritza-lursailak bereizten dituen mugatik sartzen da eremuan. Era berean, aurkeztutako dokumentazioaren arabera, jarduketaren mugetan *Quercus faginea* eta *Quercus canariensis* harizti iberikoen aleak, Larre lehor erdinaturalak eta kare-sustratuen gaineko sastra itxurako aleak ageri dira; bestalde, ez da flora babesturik edo landaredi inbaditzailearik hauteman.

Azterketaren xede den eremuan espero diren fauna-komunitateak eremu urbanizatuetako eta nekazaritzako eremuetako komunitateak dira. Eremua Zadorra ibaiaren eta haren ibaiadarren erdiko tartean sartzen da, hots, uhalde-enara espeziearen (*Riparia riparia*) banaketa naturaleko eremuan, eta bertan aplikatzen da haren kudeaketa-plana.

Eremuak ez du ukitzen Natura 2000 sareko naturagune babesturik, ez eta inbentarioan sartutako beste gune babestu edo natura-interesekorik ere. Halaber, ez dauka inbentario edo katalogoren batean jasotako paisaia-baliorik, eta ez du ukitzen EAEko Interes Geologikoko Lekuen Inbentarioan jasotako interes geologikoko lekurik, ez eta EAEko korridore ekologikoen sareko elementurik ere.

Hurbilen dagoen eremu babestua Arabako Lautadako Irla-Hariztia Kontserbatzeko Eremu Berezia (ES2110013) da, Natura 2000 Sarean sartuta eta eremuaren iparraldetik 600 m-ra dagoena. Gutxi gorabehera 700 m ipar-ekialdera Zuhatsu Vitoria-Gasteizko ureztapen-putzua dago (FA96). Putzu hori Hezeguneen Lurralde Plan Sektorialaren Hezeguneen Inbentarioan dago sartuta, III. multzoan. Azkenik, eremuaren hegoaldetik 800 metrora, Naturagune Garrantzitsuen Katalogo Irekian sartuta dagoen lekua dago: Vitoria-Gasteizko Mendebaldeko Mendiak (70).

EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialak nekazaritza eta basozaintzako balio estrategiko handikoen kategorian identifikatzen ditu esparruaren iparraldeko lursailak, hots, nekazaritza-lurzatiak. Eremuko gainerakoa basoa-baso barbana kategorian sartzen da.

Kultura-ondareari dagokionez, eremuaren mendebaldea balizko arkeologia gune izendatutako gunean dago –208. fitxa–, Done Mikel tenplua (ez zaio egiturarik ikusten. 1997ko uztailaren 8ko EHAA, 129. zenbakia). Gure horren interesa zorupean datza, tenpluaren jatorriari, egiturazko ezau-garriari eta bilakaera historiko-eraikitzaileari buruzko informazioa eman dezaketen egitura-aztarnak kontserba baitaitezke bertan.

Ingurumen-arriskuei dagokienez, azterketa-eremuaren mendebaldearekiko mugakide, 01059-01775 lurzattia identifikatzen da. Lurzati hori Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten lurzoruen inbentarioan sartuta dago. Bestalde, eremuaren iparraldean muturreko higadura-prozesuak izan ditzaketen guneak identifikatu dira. Beste ingurumen-arrisku batzuei dagokienez, ez dira hautematen ibaien uholde-arriskuen arazorik, ez sismikotasunetik eratorritako arriskurik, ez salgai arriskutsuen garraioaren ondoriozko arrisku handirik, ez eta SEVESO III Zuzentarauaren mendeko enpresen hurbiltasunagatik ere.

Planaren inguruan dauden zarata-iturri nagusiak tokiko bidea eta N-102 errepidea dira. Vitoria-Gasteizko udalerrian 2018. urteko zonakatze akustiko bat dago, baina, horretan, Ibaia eremua ez da aintzat hartzen; eremuaren sentsibilitate akustikoa kontuan hartuta, jolas eta ikuskizunen tipologia akustikoa dagokio. Ingurumen-azterketa estrategikoak inpaktu akustikoari buruzko azterlan bat jasotzen du, eta horren arabera, 20 urte barruko egoerarako, ez dira gainditzen urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezarritako kalitate akustikoaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoaren helburuak.

b) Ebazpen hau bat dator Ingurumen Azterketa Estrategikoaren ondorio nagusiekin, eta ondorioztatzen da nahikoa justifikatu dela Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariaren 2021eko abuztuaren 2ko Ebazpenaren bidez emandako irismen-dokumentuan aurkeztu ziren ingurumen-irizpideen barneratzea.

c) Plana izapidetzean, ez da gehitu ingurumen-ebaluazio estrategikoa zabaltzea eskatzen duen jarduketa berririk, eta ez da atzeman birdefinitu edo kendu behar den Planaren jarduketarik.

d) Indarrean dagoen araudiaren arabera hartuko dira babes-, zuzenketa-, konpentsazio- eta jarraipen-neurriak, baita hurrengo apartatu hauetan xedatutakoaren arabera eta, aurrekoa galazten ez dutenetan, ingurumen-azterketa estrategikoan aurreikusitakoaren arabera ere.

Halaber, Planak zehaztaperen hauek jaso beharko ditu:

d.1.– Natura-ondarea babesteko neurriak.

Planean, Arabako Foru Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzuaren 2023ko abuztuaren 22/8ko txostenean ezarritako zehaztaperen arabera birformulatutako ingurumen-azterketa estrategikoa lehengoratzeko proposamena jasoko da. Hona hemen zehaztaperenak:

– Zonako landaredi potentziala Nafarroa-Arabako eta Kantabria hegoaldeko erkametz iberikoen (*Pulmonaria longifoliae-Quercus fagineae sigmetum*) basoen segida da. Erkamezti-eremuan landatzeko hautatu beharko litzatekeen zuhaitz-espezie nagusia erkametz da (*Quercus faginea*), eta ez artea (*Quercus ilex*). Zuhaitz- eta zuhaixka-espezie laguntzaile gisa, honako hauek sar litezke: *Acer campestre*, *Cornus sanguinea*, *Crataegus monogyna*, *Fraxinus angustifolia*, *Prunus spinosa*, *Viburnum lantana* eta *Rosa canina*, besteak beste. Lursailaren ezaugarrien arabera, ur gehiago behar duten beste espezie batzuk sar daitezke, hala nola hurritza (*Corylus avellana*).

– Txilardi-eremua lehengoratzeari dagokionez, inguruan dauden espezieetako batzuk hautatu beharko lirateke, ziurrenik *Erica vagans* edo *Erica cinérea*, inola ere ez *Erica arborea*.

– Uste da zuhaixka-espezieen proportzioa zuhaitz-espezieena baino handiagoa izan beharko litzatekeela.

– Landatzeko diren berdeguneek, lehengoratzeko proposamenean konpentsazio-neurri gisa sartu direnak, naturalizatza bideratutako mantentze-lanak jaso beharko dituzte, eta ez dira bideratu behar hiri-parke eta -lorategietarako ezarritako ohiko mantentze-lanetara.

– Erkameztiak eta txilardiak landatu diren eremuetan hidroereintza egitea ez da beharrezkotzat jotzen, malda txikia dagoelako, eta ez da komenigarria ere; izan ere, tokiko berezko belar-espezieak naturalki landareztatuko dira.

d.2.– Kultura-ondarea babesteko neurriak.

Kontuan hartuta Planetik eratorritako lanek Zuatzuko Done Mikel Tenpluaren balizko arkeologia gunearen iparraldeko eremuari eragiten diotela (Vitoria-Gasteizko 208. BAG; 1997-07-08ko EHAA, 129. zk.), eta Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuaren 2023ko azaroaren 13ko txostenaren arabera, esku-hartze arkeologiko bat egin behar da, eragindako lurzatiak (359, 361 eta 362) baloratzeko alde aurreko zundaketak eginez balizko arkeologia gunearen mugaketaren barruan. Zundaketa horiek, gutxienez, obrek eragindako eremuaren hedaduraren heren bat hartu beharko dute balizko arkeologia gunearen barruan.

Zundaketen emaitzak negatiboak badira, eremu horretako gainerako lur-mugimenduen kontrol arkeologikoa egin beharko da. Aitzitik, zundaketen emaitzak positiboak badira, Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak zehaztuko dituen zuzenketa-neurriak hartu beharko dira.

Vitoria-Gasteizko Udalak ezin izango du obra-lizentzia eman lurzati arkeologikoki baloratu eta Museo eta Arkeologia Zerbitzuak hala erabakitzen duen arte.

Aurretiazko zundaketak egiteko eta obrak kontrolatzeko, prozedura honi jarraituko zaio:

- Sustatzaileak arkeologiako enpresa edo profesional bat kontratatuko du arkeologia-lanak egiteko.
- Arkeologiako profesionalak berariazko proiektu arkeologikoa aurkeztu beharko dio Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailari, eta hark, hala badagokio, dagokion baimen arkeologikoa emango du.
- Eragindako lurzatian inolako lur-mugimendurik egin aurretik egin beharko dira zundaketak.
- Berariazko tratamendua behar duten interes arkeologikoko hondakinak agertuz gero, hainbat zuzenketa-neurri har litezke, betiere Museoen eta Arkeologiaren Foru Zerbitzuak zehaztutakoak.
- Vitoria-Gasteizko Udalari jakinaraziko zaio, hirigintza-lizentzia eman dezan, hala dagokionean.
- Zundaketa fasean aztarna arkeologikorik aurkitu ez arren, behin lanak hasita, horien kontrol arkeologikoa egin beharko da.

Aurrekoa eta Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legean ezarritakoa gorabehera, Planak antolatutako eremuaren gainerakoari dagokionez, lur-mugimenduak egin bitartean aztarna arkeologikoren bat egon daitekeelako zantzuren bat aurkitzen bada, lanak eten egingo dira, eta berehala jakinaraziko zaio Arabako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusiari; hark erabakiko du zer neurri hartu.

d.3.– Lurzoruen kalitatea babesteko neurriak.

Arreta berezia jarriko da eremuaren mendebaldeko lur-mugimenduetan (lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten lurzoruen inbentarioan jasotako 01059-01775 lurzatiarekin egiten du muga), eta obrak egin artean lurzorua kutsatzen duten substantzien zantzu oinarriak hautematen badira, berehala jakinaraziko zaie Vitoria-Gasteizko Udalari eta Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, hartu beharreko neurriak eta horiek gauzatzera behartuta dauden pertsona fisiko edo juridikoak zein diren zehaztu ditzan, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 22.2 artikulua betez.

d.4.– Aurreikusitako garapena gauzatzeko den bitartean ingurumena babesteko neurri orokorrak.

Aurreikusitako garapenean, ingurumen-balioei eustea bermatzen duten neurriak aplikatu beharko dira. Bereziki:

– Obrako langileek erabili behar duten jardunbide egokien gidaliburua: hainbat gairekin zerkusia duten alderdiak bilduko ditu, hala nola lanaldiak, makineria, aldi baterako desbideratzeak, isurketak saihesteko prebentzio-neurriak, ahalik eta hauts eta zarata gutxien sortzea, herritarren lasaitasunean eragin negatiboa izan dezaketen jardunak minimizatzea, hondakinak kudeatzea eta abar.

– Kalitate akustikoa babestea: zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren 22. artikuluan ezarritakoaren arabera, zonakatzeko akustiko, kalitate-helburu eta emisio akustikoei dagokienez, obrak egitean erabiliko diren makinak egokitu egin beharko dira kanpoan erabiltzeko makinaren emisio akustikoei buruz indarrean dagoen araudian ezarritako aginduetara, eta, bereziki, egokitu beharko dira, hala badagokie, Kanpoan erabiltzeko makinek ingurumenean sortzen dituzten emisio akustikoak arautzen dituen otsailaren 22ko 212/2002 Errege Dekretuan (apirilaren 28ko 524/2006 Errege Dekretuak aldatua) eta arau osagarrietan ezarritakora.

Obrek iraun bitartean, jardunbide operatibo egokiak aplikatu beharko dira sorburuan zaratak murrizteko, bereziki indusketetan, eraispenetan, zamalanetan eta garraio-lanetan, bai eta erabiltako makinaren mantentze-lan orokorretan eta zaraten eta bibrazioen sorburuko murrizketan ere.

Eguneko lan-ordutegian egingo dira lanak. Sei hilabeterako baino gehiagorako lanak badira, urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 35 bis artikulua araberan, inpaktu akustikoari buruzko azterketa bat egin beharko da, behar diren zuzenketa-neurriak zehazteko. Inpaktu akustikoaren azterketan zuzenketa-neurriak zehaztuko dira, eta hor aztertuko da zer onura akustiko lortu nahi den zuzenketa-neurri horien bitartez, eremu akustikoetako eta eraikin sentikorretako zarata-maila murrizteari dagokionez, eta ukitutako udalerrinari jakinarazi beharko zaio haren edukia.

– Airearen kalitatearen babesa: kamioiek obran sartu eta irteteko erabiltzen dituzten bideak garbi mantendu beharko dira; horretarako, presioko ura edo erratz-makinak erabiliko dira.

– Hondakinak sortu eta kudeatzea: Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legeak ezarritakoaren arabera eta aplikatzekoak diren berariazko araudiek agindutakoaren arabera kudeatuko dira obretan sortutako hondakinak, hondeaketatik eratorritakoak barne.

Hondakinak kudeatzeko hierarkia-printzipioei jarraituz, hondakinak sortzea prebenitu behar da, edo, hala badagokio, apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 8. artikuluan ezarritako lehentasun-hurrenkerari jarraituz kudeatu behar dira, hau da: prebenitzea, berrerabiltzeko prestatzea, birziklatzea eta balorizatzeko beste modu batzuk, balorizazio energetikoa barne.

Hondakinak ezabatzeko, ezinbestekoa izango da alde zuzenetik behar bezala justifikatzea haien balorizazioa ez dela bideragarria teknikoki, ekonomikoki edo ingurumenaren aldetik.

Olio erabiliak Industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari jarraituz kudeatu beharko dira.

Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereziak izango dira, duten tipologia dela-eta isurketaren baten ondorioz nahasiz gero arriskutsuago bihurtu badaitezke edo kudeaketa zaildu badezakete. Hondakin arriskutsuak dituzten edukiontzien edo ontzien bete egingo dituzte Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 21. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak, eta itxita egon beharko dute kudeatzaileari eman arte, isurita edo lurrunduta gal ez daitezkeen. Aipatutako edukiontzien edo ontzien era argian, irakurgarriak eta ezabaezinean etiketatuta egon beharko dute, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Eremu jakin bat egokituko da behin-behineko hondakin arriskutsuak pilatzeko; besteak beste, olio-potoak, iragazkiak, olioak, pinturak eta abar. Gainera, hondakin geldoak biltzeko edukiontzi espezifikoak jarriko dira, hondakin arriskutsuen guneetatik bereizita. Era berean, lanek irauten duten bitartean, sortzen diren hondakinak biltzeko gailu estankokoak (bidoiak eta abar) jarriko dira lanak egiteko eremu osoan. Motaren arabera bereziko dira hondakinak, eta, ondoren, aldi baterako biltegitratuko dira aipatutako garbigunean.

Berariaz debekatuta dago sortzen diren tipologia ezberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin edota efluente batzuekin nahastea. Hondakinak jatorritik bertatik bereziko dira, eta horiek biltzeko eta biltegitratzeko baliabide egokiak jarriko dira, aipatutako nahasketa horiek ekiditeko.

Olio erabiliak, kudeatzaile baimendu bati eman arte, estalpean utziko dira behar bezala etiketatutako depositu estankoetan; zolata iragazgaitz baten gainean egon beharko dute, kubo txikietan edo ihesei eta isuriei eusteko sistemen barruan.

Araudi hori betetzea errazagoa izan dadin, lanen ondorioz sortutako hondakinak kudeatzeko sistemak prestatu beharko dira. Lan horien arduradunek kudeatuko dituzte sistema horiek, eta haien ardura izango da, halaber, beharginek hondakinak behar bezala erabiltzea. Bereziki, ez da inolaz ere kontrolatu gabeko efluenterik sortuko erregai eta produktuak biltegitratzeagatik, makinaren mantentze-lanak egiteagatik edo hondakinak erretzeagatik.

Eraikuntza- eta eraispn-hondakinak Eraikuntza- eta eraispn-hondakinaren kudeaketa arautzeko den ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan xedatutakoaren arabera kudeatuko dira.

Obrak egiten diren bitartean indusketa-soberakinak sortzen bada, horiek mailegu-lurrak behar dituen hurbileko obra batean balorizatzea lehenetsiko da. Balorizazioa ezinezkoa bada, soberakinak metatzeko egon daitezkeen kokalekuak identifikatuko dira, eta ingurumen-irizpideekin aztertuko da nora eraman daitezkeen soberakinak, ingurumen-inpaktu txikiena duen lekua hautatzeko. Azken kasu horretan, soberakinak biltegi baimendu batera eramango dira beti, eta haien kudeaketa hauen arabera egingo da: 646/2020 Errege Dekretua, uztailaren 7koa, Hondakinak Zabortegetan Utziz Ezabatzeko jarduera arautzen duena, eta 49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, Hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena.

– Lurpeko eta lurrazaleko urak babestea: prebentzio- eta zuzenketa-neurriak ezarriko dira dagokion obra faserako, istripuzko isurien eragina saihesteko, bereziki makinaren mantentze-lanetan (material xurgatzaileak erabiltzea, isuriek kutsatutako lurzoruak kendu eta kudeatzea, etab.).

Pilaketa-eremuak, instalazio osagarriak eta makineria-parkea gainazal iragazgaitzetan jarriko dira. Ez da makinaren mantentze-lanik egingo iragazgaiztu gabeko eremuetan, eta, nolana ere, hondakinak (bereziki, erabilitako olioak) biltzeko sistema bat izango duen plataforma iragazgaiztu baten gainean egingo dira obran erabiltzen den makineriari erregaia jartzeko eta lubrifikatzaileak aldatzeko lanak baita bestelakoak ere, urak kutsatu ez daitezzen.

Jabari publiko hidraulikoan eta haren babes-eremuetan jarduketak egiteko, Uraren Euskal Agentziaren alde aurreko obra-baimena beharko da.

– Obregatik kaltetutako eremuak leheneratzea: proiektua gauzatzearen ondorioz kaltetutako eremu guztiak leheneratuko dira. Hala badagokio, espazio libreen landareztatze-lanak ahalik eta lasterren egingo dira; modu horretan, ekidin egingo dira higadura-prozesuak, solidoak drainatze-sarera arrastatzea eta espezie aloktono inbaditzaileen kolonizazioa.

Gune libreak landareztatzeke, *Lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatzeko eskuliburua* argitalpenean jasotako gomendioak eta neurriak baliatuko dira. Eskuliburua Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak egin zuen. Jasangarritasun-irizpideak lehenetsiko dira, espezie inbaditzaileak agertzeko arriskua txikiagoa izan dadin.

Lorategi-lanetan ez dira inola ere erabiliko inbaditzaileak izan daitezkeen espezie aloktonoak; esaterako, *Fallopia japonica*, *Robinia pseudoacacia* eta *Cortaderia selloana*. Bereziki kontrolatuko da landare-estalkia lehengoratzeko lurren jatorria; hala, bermatu egingo da lorategi-lanetan erabiltako landare-lurrean ez dagoela flora inbaditzailearen propagulurik.

d.5.– Eraikingintza eta eraikuntza jasangarriaren aldeko neurriak.

Planaren eremuan eraikingintza eta eraikuntza jasangarrienerako behar diren ezaugarriak dagoenez, EAEko *Etxebizitzen Eraikingintza Jasangarriaren Gidaren* gomendioak hartu beharko dira kontuan, eraikinen energia-aurrezpena eta -efizientzia bultzatzeko eta energia berriztagarriak sustatzeko.

Eremuaren urbanizazioari dagokionez, «Urbanizazio-proiektuen garapen jasangarrirako gida»ren gomendioak kontuan hartu beharko dira. Proiektu horien diseinuaren, egikaritzearen, mantentzearen eta bizitza-amaieraren jasangarritasun-maila balioestea da gidaliburu horren helburua.

d.6.– Klima-aldaketa arintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko neurriak.

Klima-aldaketaren eta trantsizio energetikoaren maiatzaren 20ko 7/2021 Legean ezarritakoarekin bat etorritik, Plana gauzatzeko proiektuak klima-aldaketaren aurrean pixkanaka eta erresilientziaz egokitzeko beharrezkoak diren neurriak kontuan hartuta diseinatuko dira.

e) Ingurumen-jarraipeneko plana.

Ingurumen-azterketa estrategikoan ezarritakoari jarraituko dio Planaren ingurumen-jarraipenak, zeinak ingurumena zaintzeko programa bat jasotzen baitu. Programa horren xedea da behar diren zaintza- eta kontrol-sistemak ezartzea, egiaztatu ahal izateko Planean xedatzen dena betetzen dela, eta, horien barruan, planteatutako jarduketan ingurumen-exijentziak mantentzen direla.

f) Planetik eratorritako proiektuen ingurumen-ebaluazioa egiteko gidalerro orokorrak.

Planetik eratorritako proiektuen ingurumen-ebaluazioan, aintzat hartuko dira lurraldearen baldintzatzaileak eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariak 2021eko abuztuaren 2an emandako Ebazpenaren bidez eginiko irismen-dokumentuan adierazten diren ingurumen-irizpideak.

Arreta berezia jarriko da, besteak beste, lurzoru-kontsumoa minimizatzean; hondakinak egoki kudeatzean; ingurumen-baliabideen erabilera jasangarrizan; habitatak eta espezieak zaintzean eta hobetzean; lurraldean egiten diren esku-hartzeetan paisaia modu egokian integratzean; arrisku naturalak minimizatzean, eta lehentasuna ematean kalteen prebentzioari, ez konpentsazioari.

Bigarrena.– Bi urteko gehieneko epea ezartzea Ibaia kirol-hiriaren eremuaren mugaketari dagokion Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren egiturazko aldaketa onartzeko, ingurumen-adierazpen estrategiko hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen dene-tik aurrera. Epe hori igarotakoan, Plana ez bada onartu, ingurumen-adierazpen estrategiko honen indarraldia amaituko da, eta hortik aurrera ez du ondoriorik izango. Kasu horretan, sustatzaileak berriro hasi beharko du Planaren ingurumen-ebaluazio estrategikoaren izapidea, non eta ez den ingurumen-adierazpen estrategikoaren epea luzatzea adosten. Hori guztia, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 27. artikularekin bat etorritik.

Hirugarrena.– Ebazpen honen edukia Vitoria-Gasteizko Udalari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 25a.

Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria,  
JAVIER AGIRRE ORCAJO.